



Gizarte Gaien Behatokiak
Observatorios de Asuntos Sociales

Familia Behatokia
Observatorio de Familia

**Familiei Laguntzeko Erakunde
Arteko II. Planaren 2009ko
gauzatze-mailari buruzko
ebaluazioa.**

zuzendaritza-laburpena



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

AURKIBIDEA

1. ILDO ESTRATEGIKOA. ARAUDIA GARATZEA
 2. ILDO ESTRATEGIKOA. SEME ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZA EKONOMIKOA EMATEA
 3. ILDO ESTRATEGIKOA. ETXEKO ETA LANEKO BIZITZA UZTARTZEA
 4. ILDO ESTRATEGIKOA. FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK
 5. ILDO ESTRATEGIKOA. ZERGA POLITIKA ETA ERRENTA BERRIZ BANATZEKO POLITIKA
 6. ILDO ESTRATEGIKOA. GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA
 7. ILDO ESTRATEGIKOA. ELKARTE MUGIMENDUA ETA HIRITARREN PARTE HARTZEA SUSTATZEA
 8. ILDO ESTRATEGIKOA. EAEⁿ FAMILIEN ERREALITATEARI BURUZKO EZAGUTZA AZTERTU ETA ZABALTZEA
 9. ILDO ESTRATEGIKOA. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA
- EBALUAZIOAREN LABURPENA. PLANAREN EGOKITASUNA ETA EMAITZAK
- ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

1

1. ILDO ESTRATEGIKOA. ARAUDIA GARATZEA



Araudi-garapena.

Familiei Laguntzeko
Lege Proiektua
(13/2008 Legea,
abenduaren 12koa,
Familiei Laguntzeari
buruzkoa).

Familia-bitartekaritzari
buruzko Lege-
proiektua (1/2008
Legea, otsailaren
8koa, Familia-
bitartekaritzari
buruzkoa).

BI lege-proiektu
handi garatzea.
Aztertutako bi
Lege-proiektu
handiak onartu
egin dira:

BI lege-proiektu handi garatzea.

Aztertutako bi Lege-proiektu handiak onartu egin dira:

- 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskadiko Autonomia Erkidegoan judizialki bideratutako familia-topaguneak arautzen dituen.
- 255/2006 Dekretua, abenduaren 19koa, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak arautzen dituen. Planean jasotako laguntzak ezarri ziren, familia-mota eta familia-egoera guztientzat trataera berdina lortzeko asmoz.
- 118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa, etxeko eta laneko bizitzak uztartzeko neurriak arautzen dituen.
- 3 urtetik beherako haurrak zaintzeko pertsona bat kontratatze laguntzak arautzen dituzten Dekretuak; 3 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko eta hiru urtetik beherako haurrei arreta eskaintzeko zentroen sarea finkatzeko diru-laguntzen Agindua, 2007ko abenduaren 13koa.



Araudi-garapena. Balorazioa.



Finkatutako helburuen betetze-mailari dagokionez, balorazio positiboa merezi du esparru horrek, argi eta garbi.

Onartutako arauak **Planean ezarritako hainbat helburuekin bat datozela** ere esan daiteke, hala nola familia-motak eta haien seme-alabak parekatu eta, oro har, familien ongizate-maila hobetzen laguntzeko helburua finkatzearen ingurukoak.

Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

2

2. ILDO ESTRATEGIKOA. SEME ALABAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZA EKONOMIKOA EMATEA



Kargura dauden seme-alabengatiko laguntzak.

Lehen seme-alabak

- Laguntza puntuala (ordainketa bakarra), hiritar guztien eskura.
- Kobratzeko hiru tarte bereizi: 400€, 500€ y 900€ (Familiaren Errentaren arabera).
- 109/06 Dekretua

Bigarren seme-alabak

- Laguntza hori puntuala izatetik aldizkakoa izatera iragan da.
- Laguntza horiek (2002an) bigarren umearen jaiotze (edo adopzio) bakoitzeko 1.100 euroko laguntza unibertsalarekin hasi ziren. Geroago, 109/06 Dekretuak laguntzak handitu zituen, eta 2 urtesarira iragan ziren: 1.100 € (jaiotze urtean) + 400 € (hurrengo urtean).
- 176/02 eta 109/06 Dekretuak

Hirugarren seme-alabak eta hurrengoak

- Aldizkako laguntza.
- Bost urtesaritik zazpitarira iragan da. Lau urte bete arte urtero 1.100 € dira, eta 400 €-ko beste bi urtesari sei urte bete arte.
- 176/02 eta 109/06 Dekretuak

Erditzea, adopzioak edo adopzio aurreko hartze anitzak

- Lehenengo Planeko aldizkako laguntzak desagertu egin dira eta 2007tik aurrera prestazio bikoitzeko sistema berri batek hartu du haien lekua:
- Laguntza orokorrak (aurretik aipaturikoak) • haien izaeraren ondorioz datozen aparteko gastuei aurre egiteko laguntza puntuala.
- Laguntzako dirusaria denez, zenbatekoa familia-errentaren arabera esleitzen da.
- 255/06 Dekretua



Kargura dauden seme-alabengatiko laguntzak. Gauzapena.



Laguntza horretarako pixkanakako hazkundera egon da.

Kargura dauden seme-alabengatiko laguntzak. Gastua urtearen arabera (subentzioa urtean).

	2006	2007	2008	2009
1. seme-alabak	5.759.900	7.899.500	7.782.600	7.366.200
2. seme-alabak	9.951.900	9.760.800	11.010.800	10.635.900
3.ak eta hurrengoak	2.236.500	2.425.700	3.695.800	5.376.000
Anitzak	1.448.067	2.860.633	2.844.200	2.806.500
Guztira	19.396.367	22.946.633	25.333.400	26.184.600

Kargura dauden seme-alabengatiko laguntzak. Gastua urtearen arabera (urtekoak eta jarraipenak).

	2006	2007	2008	2009
1. seme-alabak	5.759.900	7.899.500	7.782.600	7.366.200
2. seme-alabak	9.951.900	10.869.400	11.012.800	10.635.900
3.ak eta hurrengoak	6.698.900	7.470.600	7.882.301	8.301.500
Anitzak	5.972.267	7.757.667	7.085.500	6.055.700
Guztira	28.382.967	33.997.167	33.763.201	32.359.300

Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.




Kargura dauden seme-alabengatiko laguntzak. Estaldura.

2009an 29.280 espediente onartu ziren, eta pixkanakako hazkuntza egon da.

EUSTATEN datuen arabera, laguntza hori jaso lezaketen 36.632 haurretatik 29.280 diru-laguntza eman dira 2009an eta, ondorioz, % 80ko estaldura dago.

Urteko jaiotzekiko lehen haurrengatiko espedienteek adierazten dutenez, **aurreikusitako estaldurak maila altuagoa dauka, % 92 ingurukoa.**

Kargura dauden seme-alabengatiko laguntzak. Espediente onartuak.				
	2006	2007	2008	2009
1. seme-alabak	8.123	10.687	10.626	10.338
2. seme-alabak	6.948	7.392	14.017	13.963
3.ak eta hurrengoak	1.322	1.563	2.905	4.340
Anitzak	474	551	627	639
Guztira	16.867	20.193	28.175	29.280




* Urtero ebazitako espedienteen buruzko datuak, eskaera noiz aurkeztu den kontuan hartu gabe.
Iturria: Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.

Iturria: Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.



Kargura dauden seme-alabengatiko laguntzak. Lurralde historikoak.

Emandako laguntzetan hazkunde jarraituena Araban eman da, eta gainerako bi lurraldeetan moteldu egin dira.



Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.




Familiantzako eta hiru urtetik beherako adingabeen haurrentzako arreta-zentroen sarea indartzeko laguntzak.



Aztertutako azken hiru urteetan, guztira 14.718 eskaera onartu dira eta 12.600.391 €-ko laguntzak eragin dituzte.

Urtero, EAEko bost mila familia inguruk erabili dute. Halere, **laguntza-ukatze asko egon denez, badirudi eskaera potentziala gauzatutako laguntzaren bikoitza dela gutxienez, baina hainbat arazo tarteko (administrazio mailakoak, ulertzeko zailtasuna, diru-sarrerara apalegia izatea, ...) ez dela gauzatzen.**

EAEen eskolatuta dauden hiru urtetik beherako haurrei erantzuteko, programaren estaldura estimatua % 16 ingurukoa da.



Iturria: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.



Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoa. Eragileen eta hiritarren balorazioa.



Hiritarren balorazioa oso positiboa da, nahiz eta laguntza hori, argi eta garbi, ez den nahikoa seme-alaba batek eragiten dituen gastuei aurre egiteko.

Antolakunde batzuen aldetik ezadostasun ideologikoa sumatzen da, haien ustez zerbitzuetan jarri behar baita indarra, eta ez laguntza ekonomikoetan.

Bereziki begi onez ikusi da nazio mailan murrizketak ugaltzen direnean laguntzei eustea. Haurrentzako arretazentroen sarea mantentzeko zailtasunak (oso laguntza mugatua, eta errenta baxuena dutenentzat baino ez).



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

3

3. ILDO ESTRATEGIKOA. ETXEKO ETA LANEKO BIZITZA UZTARTZEA




Lau programa nagusi.




Lau programa nagusi hartzen ditu: seme-alabak edo mendetasuna duten helduak zaintzeko lan-eszedentzia edo -murrizketa hartu duten langileentzako laguntzak; seme-alabak direla-eta lan-murrizketa edo -eszedentzia hartu duten langileen ordezkioak kontratatze-ko enpresentzako laguntzak, eta 3 urtetik beherako haurren zaintzaileak kontratatze-ko laguntzak.

Programa horietatik, zalantzarik gabe lehena da gehien erabiltzen dena (gastuaren % 88 dakar horrek), eta gero, urrun datoz ordezkioak kontratatze-ko enpresentzako laguntzak (% 10). Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia/murrizketa dutenentzako eta 3 urtetik beherako haurren zaintzaileak kontratatze-ko laguntzak hondar-hondarrekoak dira, nahiz eta azken urteetan biek ere hazkuntza nabarmena izan duten.



Laneko eta Etxeko bizitza uztartzeko laguntzak. 2009ko kostuak.



Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.

Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzian edo lan-murriztuan dauden langileentzako diru-laguntzak. Gauzapena.



Neurri horiek erabiltzeko generoen arteko desberdintasuna ageri-agerikoa da, baita 2009an ere: gizonen artean, gastu osoaren % 7,27 eragin dute.

Seme-alabak zaintzeko diru-laguntzak. EAEko gastua, laguntza motaren, generoaren eta urtearen arabera.				
		Gizonak	Emakumeak	Guztira
2008	ESZEDENTZIAK	109.878,73	2.618.889,22	2.728.767,95
	% 33-40 murrizketa	409.505,00	3.981.107,69	4.390.612,69
	% 30-45 murrizketa	32.586,59	400.665,64	433.252,23
	% >= 45 murrizk.	269.093,89	3.286.617,63	3.555.711,52
	MURRIZKETAK	711.185,48	7.668.390,96	8.379.576,44
	GUZTIRA	821.064,21	10.287.280,18	11.108.344,39
2009	ESZEDENTZIAK	156.148,23	3.792.752,99	3.948.901,22
	% 33-40 murrizketa	672.749,66	6.881.752,66	7.554.502,32
	% 30-45 murrizketa	59.381,59	763.592,61	822.974,20
	% >= 45 murrizk.	456.277,21	5.864.601,88	6.320.879,09
	MURRIZKETAK	1.188.408,46	13.509.947,15	14.698.355,61
	GUZTIRA	1.344.556,69	17.302.700,14	18.647.256,83

Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.




Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzian edo lan-murriztuan dauden langileentzako diru-laguntzak. Estaldura.




Programa horren hartzaile gehien-gehienak emakumeak dira; azken hiru urteetan eszedentziagatik edo murrizketagatik egin diren espedienteen % 5 baino ez dira izan gizonak.

2009an erregistratutako 45.800 espedienteek erakusten digutenez, **urtero gutxienez 13.000 pertsona izaten dira** (urteko hiruhilekoetan erregistratutako gehieneko pertsona-kopurua kontuan hartuz, baina ez dakigu pertsona batek zenbat hiruhilekotan eskatzen duen laguntza). Eusko Jaurlaritzaren azken datuen arabera, 108.000 “familia” inguru daude, 6 urtetik beherako haurrak izanik, bi gurasoak lanean ari direnak. Kasu horretan, badirudi gutxienezko estaldura % 12 baino zertxobait altuagoa dela.

Murrizketagatiko espedienteen portzentajea 2009an, generoaren arabera.



Eszedentziagatiko espedienteen portzentajea 2009an, generoaren arabera.



Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.



Mendetasuna duten senideak zaintzeko lan-eszedentzian edo -murriztuan dauden langileentzako diru-laguntzak.



Programak lehen urtean izan duen eragin murrizta erakusten digu gastuaren bilakaerak, orduko hartan mila euro eskas bideratu baitziren. Gero, 2008an, 105 mila euro tara iritsi zen gastua eta **2009an ia bikoiztu egin zen (194.827 €). Zenbateko horretatik % 70 emakumeentzat izan ziren eta % 30, gizonentzat.**

2009an % 33-40ko murrizketako tartean egindako espedienteen kopurua handiagoa izan zen, 214 kasutan, eta askoz ere txikiagoa % 40-45eko murrizketako tartean, 17 kasutan baino ez.

Emakumeak gehiago dira, eszedentzietan eta, batik bat, lanaldi murriztuetan.




Lan-eszedentzian edo -murriztuan dauden langileen ordezeko pertsonak kontratatzeko enpresentzako diru-laguntzak.



2009an guztira 1.749 espediente subentzionatu ziren, eta guztira 2.090.855 €-ko gastua eragin dute. Aurreko urteetan bideratutako 84.101 euroak erantsi behar zaizkio horri eta, ondorioz, ekitaldian 2.174.957 €-ko gastua izan da.

Termino absolutuetan, askoz ere emakume langile gehiago ordezten dira gizon langileak baino, modalitate eta urte guztietan.

Gizonen aldean, murrizketetan (% 2,73) eta eszedentzietan (% 4,98) emakume langileen ordezkapen gutxiago egiten da (gizonen kasuan % 5,13 eta % 30,04, hurrenez hurren). Ez da alde handia baina bai agerikoa.



Iturria: Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.




3 urtetik beherako haurren zaintzaileak kontratatzeko diru-laguntzak.

2009an 110.718 euro bideratu ziren laguntza horretara. Oso zenbateko apala da, uztarketarako beste laguntza batzuekin alderatuz gero.

Zaintzaileak kontratatzeko diru-laguntzak. Urteko kostuak.		
	2008	2009
Gastu (€)	82.893	110.718

Iturria: Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.

Bi urteetan 192,65 €-ko batez besteko kostua egon da. Kopuru horrek gora egin du, baina halere lortu nahi den helbururako gutxiegitzat jotzen da.



Iturria: Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, 2010.

Norbere kontura edo autonomo gisa jarduera ekonomikoa egiten duten pertsonentzako eszedentziarako eta murrizketarako diru-laguntzak.



Familiei laguntzeko Erakundeen Arteko II. Planak, seme-alabak eta mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lan-murrizketarako edo -eszedentziarako diru-laguntzak pertsona langile autonomoen kolektibora hedatu aurretik, beste langile batek autonomo hori ordezkatzeko baldintza ezartzen du.

Halere, ezin izan da puntu hau garatu, estatu mailako legeriaren mugak direla eta.

Eusko Jaurlaritzak halako jardunbideak diruz lagundu ahal izateko, estatuaren eskumenekoak diren hainbat alderdi zehaztu behar dira (adibidez nola egiaztatuko den lan-murrizketa edo lanaren etena, LAABen alta emanda jarraitu behar den...).



Laneko eta etxeko bizitza uztartzea. Eragileen eta hiritarren balorazioa.



Hiritarren balorazioa oso positiboa da, enplegua mantentzeko laguntza “partziala” (eragin mugatuekin) delakoan. Nolanahi ere, ez dute uste ardurakidetasuna lortzeko horren eraginkorra denik.

Neurri horien bidez mendetasuna duten pertsonen arretari eskainitako laguntza oso murrizta da kopurutan baina, halere, gorako joera erakusten du.

Orokorrean, balorazioa positiboa da, baina berriro ere ez da “erabakigarritzat” hartzen, lagungarri huts gisa baizik.

Batzuek zalantzan jartzen dute ea laguntza horiek ez ote duten bultzatzen emakumeak lan-merkatuan bigarren mailan mantentzea.



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

4

4. ILDO ESTRATEGIKOA. FAMILIEI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK



Familiei laguntzeko zerbitzuak.



Ildo estrategiko **heterogeneoena** da, jasotzen dituen neurrien tipologia dela-eta eta, batik bat, parte hartzen duten **erakundeen aniztasuna** dela-eta (Planaren “erakunde-artekotasunaren” muin nagusia dira, errenta berriz banatzeko zerga-politikaren ildoarekin batera).

Biztanleriaren multzo nabarmenei eragiten dien neurri nagusiak jasotzen ditu (0 eta 3 urte bitarteko Haur Hezkuntza; Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuak edo Eguneko Zentroak...) eta aurrekontu-sail garrantzitsuak eskatzen ditu. Hamaika jarduera espezifiko jasotzen ditu, batzuetan pertsonen egoera zehatzei lotuak, eta pertsona bizi den lurraldearen eta udalerrriaren arabera zenbatekoa aldatzea eskatzen du, gainera.

Planaren garapenaren errealitatea zuzen jasoko duen ikuspegi bat jasotzekotan, laguntzako zerbitzu horiek aztertzea da, hain zuzen, ebaluazioaren erronka nagusietako bat; izan ere, erakunde-arteko informazio-sistema koordinatuak oraindik garatze-bidean daude.



Familia ugarientzat eta izatezko bikoteentzat.



Euskadiko Autonomia Erkidegoan urtez urte hazi da Familia Ugariko tituluen kopurua eta 2009an 18.191 izan ziren. Ziur aski, hazkunde horren azpian zera dago, biztanleek titulu horri lotutako abantailak ezagutu eta igartzen dituztela. Gipuzkoan familia ugariko titulu gehiago daude, lurralde horretan jaiotze-tasa handiagoa baita.

Bestalde, EAEn Izatezko Bikoteak arautzen dituen 2/2003 legea garatu da, aukera afektibo-sexual guztiekiko errespetuzko testuinguruan, eta pluraltasun-, berdintasun- eta askatasun-printzipioei jarraituz, beren izaerari egokitzen zaion familia-eredua osatzeko askatasuna erabiltzeagatik pertsona askok jasaten duten legezko diskriminazioari amaiera emateko. 2009an bost mila izen-emate baino gehiago izan ziren EAEn, 2008an baino zertxobait bat gutxiago.

Halatan, esan daiteke 2009an ildo estrategikoaren barruan kokatutako neurri-multzo hori garatzen jarraitu dela.





3 urtetik beherakoentzako haur-eskolak.



2008-2009 ikasturtean 34.522 leku egon dira 0-3 bitarteko haurrentzat; horietatik % 56,56 sistema publikoan eta gainerako % 43,44a sistema pribatuan.

Estalduraren balorazioa positiboa da, argi eta garbi, baina halere zailtasunak daude, batetik haurzaindegietan lekua aurkitu ahal izateko, eta bestetik haien kostua dela eta. Balizko erabiltzaileentzat eskaintzen duten estaldura-tasa altuaz harago, hezkuntza publikoari egozten zaion ordutegi-zorroztasuna dela eta, laneko bititza eta bititza pertsonala uztartzea erraztuko duen beste zerbitzu osagarri bat behar ote den pentsatzea dago.



Iturria: Ikastetxeen Zuzendaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2010.



Etxebizitzarako laguntza.



Etxebizitzari lotutako arazoek eragin handia dute gizarte osoan eta, ondorioz, familia guztiengan ere bai. Nolanahi ere, Planaren eremu horretan aurreikusitako neurriek oso zedarrituta daude, hain zuzen ere guraso bakarreko familietara eta familia ugarietara.

Horregatik 2009an esparru horretan izandako garapen murriztaren balorazioa egiterakoan, ezarri zen helburu murriztaren testuinguruan kokatu behar da.

- 2009an 93 etxebizitza erreserbatu ziren alokairuan guraso bakarreko familientzat.
- 5 BOE erreserbatu ziren 5 kide baino gehiago zituzten familientzat.
- 2009an bertan, 56 familia ugari erregistroan sartu ahal izan dira “salbuespen” gisa, etxebizitza izan arren, bertan kide bakoitzeko 15 m² baino gutxiagoko azalera zutela eta. Familia horietarik 25i babeseko etxebizitza bat esleitu zaie.
- Familia bati, erabilitako etxebizitza librea erosteko laguntza eman zaio.

2006-2009 bitartean, soilik **mila eta berrehun familia ugari jaso dute euren etxebizitza zaharberritzeko laguntza**, eta kopuru horrek agerian uzten du esparru horrek duen irismen kuantitatiboa.

Gaur egun salbuespenezko bidetik etxebizitza esleitzeko bideak murrizketa nabarmena jasan du, orain arte erabiliko irizpideak zorrotz estutu dira eta.

Etxebizitza Sailetik esaten denez, aurrerantzean egin nahi den politikak familiaren protagonismoa berreskuratu nahi du eta, ondorioz, hoberen funtzionatu duten neurriak sustatuko dira, adibidez zaharberritzea, baina auzoen berronertzea eta energia-eraginkortasuna bilatzen duten beste politika batzuen baitan.



Familietara bideratutako gizarte-zerbitzuak.



Gizarte mailako esku-hartzeek, sarri askotan, pertsona jasotzailearengan ez ezik, haren familia-ingurunean ere dute eragina.

Planak berak dioenez, familiaren berriazko esparrukotzat jo ahal diren **esku-hartzeak hobeto zehaztu behar dira, bereziki Gizarte Zerbitzuen alorrean**, kideei zuzendutako esku-hartze horietako askok eragin zuzena baitute familiengan.

Zaila da emaitzei buruz, edota inplementazioari buruz, balorazioa egitea, batetik informazioa sakabanatuta eta murrizta delako, eta bestetik, aurrekontua ezagutzeaz gain edo erabiltzaileen kopurua berdin mantentzen den edo gorako joera duen jakiteaz gain, ez dagoelako haren bilakaera ebaluatzeko aukera emango duten helburu orokorren zehaz

Pertsona Nagusientzako Gizarte Zerbitzu batzuen erabiltzaile- eta plaza-kopurua, eta estaldura-indizea. 2008ko urtarrila.

	EELZ (Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua)	Telelaguntza	Eguneko Zentroetako Lekuak	Egoitzetako Lekuak
EAEko erabiltzaileak	21.891	14.333	3.560	18.096
Espainiako erabiltzaileak	358.078	395.917	63.446	339.079
Estaldura-indizea EAEn	5,45	3,57	0,89	4,51
Estaldura-indizea Espainian	4,69	4,72	0,83	4,44



Familietara bideratutako gizarte-zerbitzuak. Gatazkak.


Familia-bitartekaritza

Bikote-hausturei lotutako auziei dagokienez, 2009an maila sozio-ekonomiko baxuak (% 36,3) eta ertain-baxuak (% 25,6) nagusitzen dira. Bestalde, emakumeek eskatzen dute gehienetan bitartekaritza-alorreko esku-hartzea egiteko aukerari buruzko informazioa, kopuru osoaren % 71. Alegia, pertsona erabiltzailearen profil-eredua honako hau da: emakumea, behe- edo erdi-mailako gizarte-klasekoa.

Familia-topagunea

Bizkaiko Foru Aldundiak Portugaleteko Udalarekin batera eskaintzen duen Familia Topagunearen zerbitzuan emakumeak babesteko aginduek gorakada handia izan dute azken urteetan (2007an 113, 2008an 147).

Gure Erkidegoan genero-indarkeriak hazkunde etengabea izan du azken urteetan, eta bikoiztu ere egin da, 2002an izandako 2.477 kasuetatik 2009an izandako 4.859 kasuetara.



Iturria: Azterketa Alorra. SSKZ. Herrizaingo Saila, "Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeak EAEn, 2009".

Familiei laguntzeko zerbitzuak. Eragileen eta hiritarren balorazioa.



Adingabeentzako eta mendetasuna duten pertsonentzako arreta-zerbitzuak oso garrantzitsutzat jotzen dituzte hiritarrek, bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzea errazten dutelakoan.

Esparru horretan lan egiten duten antolakundeen ustez, hutsune ugari daude zerbitzuetan. Batik bat, mendetasunaren arretari dagokionez, garapen geldoa eta eskasa dagoela irizten dute; eta ikastetxeen kasuan, haien kostua eta ordutegien zorrotasuna aipatzen dira.




Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

5

5. ILDO ESTRATEGIKOA. ZERGA POLITIKA ETA ERRENTA BERRIZ BANATZEKO POLITIKA



EAE n PFEZren murrizketak dituzten familien kopurua eta murrizketen zenbatekoa, murrizketamotaren arabera.



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinatzaile Organoa 2010.




Ondorengoengatiko zerga-murrizketak.

Murrizketa horiek 30 urte baino gutxiagoko ondorengoengatik ezartzen dira.

Deklarazio sortuetan ezarritako zenbatekoa 231 milioi eurotik gorakoa izan zen 2007an, eta 2008an % 6,4 hazi zen, ia 246 milioi euroraino.

2008an, horrelako murrizketa-mota zeukaten zergen guztizkoa (403.220) % 2,5 hazi zen, hau da, 274.242 familia.




Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa 2010.

Aurrekoengatiko zerga-murrizketak.

Zergadunarekin urte osoan eta era jarraituan bizi den aurreko senitartekoengatik ezartzen da murrizketa hori. Bizikidetzaren parekotzat jotzen da ondorengo senitartekoak bere ondasunetik ordaintzen dituenean aurreko senitartekoa urte baliodunean era etengabea eta jarraian bizi den egoitza ordaintzeko zenbatekoak.

2008an 11.669 familia izan ziren murrizketa horien onuradunak, eta guztira hiru milioi euro bideratu ziren horra.



Iturria: Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa 2010.

Beste zerga-murrizketa batzuk.



SEME-ALABEN ELIKADURAGATIKO MURRIZKETA

Epaileen erabakiz, seme-alaben elikadura ordaintzeko urtesariak ordaintzen dituzten pertsona zergadunei ezar dakieke murrizketa hori. Murrizketak gehienezko mugak ditu: kontzeptu horregatik ordaindutako zenbatekoaren % 15, hain zuzen. **2008an 11.531 deklaraziotan ezarri dute murrizketa hori, eta guztira 2,7 M€-ko murrizketakeragin zituen.**

FAMILIA UGARIEK OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEAGATIKO MURRIZKETA

Ohiko etxebizitza erosteko erabili dien zenbatekoaren % 18ko murrizketa ezar daiteke, 2.160 €-ko mugarekin, baina zergadunek 35 urte baino gutxiago badute edota familia ugariako titularrak badira, murrizketa % 23koa eta muga 2.760 €-koa izan daiteke. Murrizketa horren onuradunak diren familia guztietatik, familia ugariak % 1,4 baizik ez dira. **Murrizketa horregatik ezartzen den zenbateko osoak gora egin du hiru lurraldeetan, eta 2008an 9,5€M-koa izan zen.**

FAMILIA UGARIEK OHIKO ETXEBIZITZA ALOKATZEAGATIKO MURRIZKETA

Murrizketa hori ohiko etxebizitza alokatzearen truke ordaindutako zenbatekoei ezartzen zaie. Murrizketa % 20koa da, urtero 1.600 euroko mugarekin, eta % 25koa eta 2.000 €-ko muga, 35 urtetik beherako zergadunak edota familia ugariako titularrak direnean. **Murrizketa horren familia ugari onuradunak 426 baino ez dira izan, eta guztira 584 mila euroko kopurua izan da (2008).**



Zerga-politika eta errenta berriz banatzeko politika. Eragileen eta hiritarren balorazioa.



Zerga-murrizketak dira EAEko hiritarrek hoberen baloratzen duten familien aldeko jarduera: 1etik 9rako eskala batean, 7,2.

Zerbitzuak indartu eta Europako beste herrialde batzuen mailan jartzearen aldeko iritzi-korronte bat dago.



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

6

6. ILDO ESTRATEGIKOA. GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA



Sentsibilizazioa eta informazioa.



Izenburu horren pean, informazio- eta publizitate-kanpainak, argitalpenak eta biltzarrak eta mintegiak aipatzen zituen Planak.

Kanpainen eremuak ia ez du garapenik izan 2009an.

Halatan, hiritarrek eurek uste dute laguntzen gainean duten ezagutza baxua dela, “nahikoa” baino apalagoa (1etik 9rako eskalan batez besteko balioak dira, 5 izanik tarteko balioa).

EAEko hiritarrek esparru horri buruzko informazioa jasotzeko gehien erabiltzen duten baliabidea **Udala** da.

Oro har, gizonek emakumeek baino informazio gutxiago dute. Gutxien ezagutzen den programa adingabeak zaintzeko kontratazioaren ingurukoa da.

Planari buruzko informazioa.	
	Batez beste
Familiarentzat dauden laguntza- eta baliabide-multzoaren inguruan ondo informatuta nago.	4,4
Argi daukat zein diren Eusko Jaurlaritzaren laguntzak.	4,4
Familiarentzako laguntzei buruzko informazioa ematen duen Eusko Jaurlaritzaren webgunea ezagutzen dut.	3,5

Iturria: 2010eko hiritarren inkesta.



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

7

7. ILDO ESTRATEGIKOA. ELKARTE MUGIMENDUA ETA HIRITARREN PARTE HARTZEA SUSTATZEA




Elkarte-mugimendua eta hiritarren parte-hartzea.



Familia-esparruko elkarteei bideratutako urteroko aurrekontuak gora egin du azken urteetan, baina 2009an beherakada txiki bat izan du.

Herritarren parte-hartzeari dagokionez -hori ere Eusko Jaurlaritzaren ekintzen barruan baitago-, "Irekia" web-atariaren jaiotza azpimarratu behar da. Administrazioaren eta hiritarren arteko hurbiltasun-eza saihesteko asmoz jaio da, "open government" kontzeptuari jarraituz: Administrazioaren eta herritarren artean komunikazio-bideak eta harreman zuzena eskaintzen ditu, Internetek gaur egun eskaintzen dituen baliabide berriei esker.

Aurrekontua eta subentzionatutako programak.



Iturria: EAEn familiaren esparruan programak eta jarduerak egiteko subentzioak arautu eta deitzeko Aginduak..

Halatan, ildo estrategiko horren garapen etengabea azpimarratu behar dugu, nahiz eta zeharkako esku-hartzea denez, emaitzak baloratzea zailagoa den.



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

8

8. ILDO ESTRATEGIKOA. EAEn FAMILIEN ERREALITATEARI BURUZKO EZAGUTZA AZTERTU ETA ZABALTZEA



EAE n familien errealitateari buruzko ezagutza aztertu eta zabaltzea.



2009a “**trantsizio**” urtetzat jo daiteke, behaketa-tresnei begira, informazio-sistemak zehaztu eta indartzeari begira, etab. Horregatik, esparru horretan egindako ekintza zehatzak baino, prozesu-garapenak aipa daitezke.

Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saileko Gizarte Gaietarako Zuzendariordetzako gainerako zuzendaritzak ere, informazio-kudeaketaren modernizazio-prozesuan daude. Gobernuan dauden behatoki guztiak koordinatzeko eta optimizatzeko zehaztutako estrategia da. Hartara, hainbat sail eta zuzendaritza hartzen ditu, eta baliabideen koordinazio eta optimizazioak definitzen ditu.

Familiaren errealitatearen inguruko **azterketa nagusia** 2008koa da (Etxeen Inkesta, 2008). Eskuratu zen informazioaren azterketak jarraipena izan du geroago, eta EAEko familien osaera eta egoera hobeto ezagutzeko aukera eman du.



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

9

9. ILDO ESTRATEGIKOA. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA



Planaren jarraipena eta ebaluazioa.



Ildo horretan garatu dira programen jarraipenari lotutako neurriak (gauzatu eta egokitu direla bermatzeko) eta Planaren beraren ebaluazioari lotutako neurriak (2006-2008 Tarteko Ebaluazioa eta 2009ko Tarteko Ebaluazioa).

Horrez gain, Planaren neurri nagusien jarraipenari eta bakoitzaren azterketa partzialari esker, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko 2010eko Dekretua sortu zen.

Beste Erakunde batzuekiko koordinazioaren esparruan, **gauzapenei eta emaitzei buruzko informazio sistematizatua eskuratzeko** arazoak daude.

Nolanahi ere, eta ildo estrategiko horren diseinuan nahiz informazio-sistemen garapenean hobetu beharreko alorrak dauden arren, II. Planean aurreikusitako neurriak bete egin direla azpimarratu behar dugu, tarteko ebaluazioak txertatzeaz gain, Planeko programei buruzko oinarritzko informazioa jaso baita.



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

10

EBALUAZIOAREN LABURPENA. PLANAREN EGOKITASUNA ETA EMAITZAK



Planaren egokitasuna eta emaitzak.

Ikuspegi orokor batetik, eta aztertutako ildoetarako arreta eginez, esan behar dugu Plana aurreikusita zegoen bezala gauzatu eta diru-laguntzen nahiz zerbitzuen alderdietatik geroz eta estaldura zabalagoa eskaini dela. Gainera, 2010ean Planeko programa batzuetan egindako aldaketek adierazten dute Plana hobetzeko apustu positiboa dagoela.

Ebaluazio honetan, egokitasunaren balorazioa egiteko, honako hauen azterketa eta ondorioak erabili dituzte talde ebaluatzaileak:

Planeko neurrien kudeaketari eta garapenari lotutako eragileek (administrazioetako hainbat maila, hirugarren sektoreko entitateak...), gizarte-eragile esanguratsuek eta hiritarrek eurek (inkestaren bidez) egindako balorazioak).

Eskuratutako emaitza kuantitatiboak, denboran izan duten bilakera... eta horiei laguntzeko, aztertu beharreko eremuetan joerak erakusten dituzten informazio-iturri batzuk ere bai.

Gizarte-politikan eta familiarekiko laguntzan "erreferentziatza" hartu ahal diren Europako beste herrialde batzuekiko analisi konparatiboa.

Planean egindako gastua.

Pentsatu behar dugu ondoko taulak izaera erakusle hutsa duela eta ez dela jasotzen benetako egoeraren isla zorrotza, zaila baita Udalek eta Aldundiek parte hartzen duten 4. ildo estrategikoaren gastua (I 2an eta 4an agertzen da batura) zehatz balioztatzea.

Planean egindako gastua, ildo estrategikoaren arabera eta urtearen arabera.

	2006	2007	2008	2009
1. Araudi-garapena	0	0	0	0
2. Diru-laguntza*	32.428.820	37.534.032	37.224.300	37.629.768
3. Uztarketa	20.810.564	20.669.185	16.479.534	22.262.635
4. Laguntza-zerbitzuak**	202.728.063	217.125.793	236.443.963	245.669.537
5. Zerga-politika	230.351.777	234.776.000	236.158.815	250.413.000
6. Sentsibilizazioa	437.505	450.630	460.406	0
7. Elkarte-mugimenduaren sustapena	579.258	602.428	620.501	611.356
8. Familiaren errealitatearen azterketa	0	0	286.321	0
9. Planaren jarraipena eta ebaluazioa	0	11.562	55.620	33.000
Guztira	486.898.482	510.719.000	527.269.054	556.619.296

**Haur Eskolak + Foru laguntza-zerbitzuak + Udal laguntza-zerbitzuak + Familia ugariko txartelak + Familia Bitartekaritarako Zerbitzua (EJ)
 *Seme-alabengatiko Laguntzak Guztira (1. planean konprometitutako kredituak + 2006-2007ko 2. Planaren Kostua + haurtzaindegietarako diru-laguntzak)

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzetako hainbat informazio. Familiei Laguntzeko II. Plana, Foru Aldundiak, etab.

Balorazioa.



Euskal gizartearen balorazioa

Euskal gizarteak positiboki baloratzen ditu familiei ematen zaizkien laguntza guztiak: haur-hezkuntzarako lekuentzako laguntza zuzenak, zerga-murrizketak, ... Desadostasun nagusiak aipatzerakoan, helburuak lortzeko **zenbatekoak gutxiegitzat** jotzen dituztela.

Programen erabiltzaileak izan ala ez, EAEko hiritarrek **diru-laguntza eta baliabide** (eskoletan ordutegi zabalak...) **gehiago behar direla uste du**. Neurri horiek laneko eta etxeko bizitza uztartzen laguntzea ere positibotzat jotzen dute (9tik 6k).

Eragileen balorazioa

Ebaluazioan eragile anitzek parte hartu dutenez, balorazioan ere ikuspegiak anitzak dira, balorazioa hori egiten den ikuspuntuaren arabera. Oro har esan daiteke kasu batzuetan baino ez dela egiten ikuspegi kritiko orokorra, eta kasu gehienetan doikuntza partzialak edo izaera operatibokoak planteatzen direla, neurrien eraginkortasuna hobetzeko asmoz. Eragileek egindako ekarpenetako batzuk azken proposamenetan sartu dira.



Lortutako emaitzak (1/3).



- 1.- **Familia-mota guztien eta euren seme-alaben eskubideak sustatu eta babesten ditu** Planak. Programetan egindako aldaketek ildo horri jarraitzen diote, eta ondorioz, II. Plana helburuak betetzen ari dela esan daiteke. Plana garatzeko eskaera gehienak sentsibilizazioa areagotzeari begira aipatzen dira.
- 2.- Zerbitzu-zorroaren eta neurri eraginkorrak hartzearen erabakiaren inguruko azterketari dagokionez, **berriro ere positiboki baloratu behar da** azterketak, ebaluazioak... egin izana, **bai eta programak etengabe egokitzea ere.**
- 3.- Ziur aski, **Erakundeen arteko politika koordinatua eta integrala lortzea da ahalegin handiena eskatzen duen helburuetako bat.** Hori horrela izateko urratsak egin badira ere, Informazio Sistemak zatikatuak dira oraindik ere, eta erakundeen arteko harremanek, batik bat udal mailan, erakusten dute deszentralizazio handiko mailetan, Plan baten izaerarekin jokatu beharrean, neurriek izaera "autonomoa" edukitzeko joera dutela.
- 4.- **Familien eta hura osatzen duten pertsonen ongizate-maila hobetzen laguntzea** ere positiboki baloratu behar da, familiek baliabide gehiago izatea ahalbidetzen baitu, hezkuntzan, etxez etxeko laguntzan, haurtzaroaren arretan, familia-bitartekaritzan... behar dituzten zerbitzuak eskaintzen zaizkien heinean. Berriz ere, ekarpen hori nahikoa ote den baloratzeko orduan sortzen dira zailtasunak, ez baitago haren bilakaera neurtzeko parametro konparatiborik.



Lortutako emaitzak (2/3).



- 5.- **Bikoteek eta pertsonen familia-proiektuari ekitea eta nahi duten adina seme-alaba izatea zailtzen duten oztopoak pixkanaka-pixkanaka ezeztatu edo murrizteari dagokionez**, argi dago Planeko neurriak ildo horretan kokatzen direla. Kontuan izan behar dugu horiek guztiak “mailaka” ezeztatzea hartzen duela Planak helburutzat, eta ziur aski errealista izatea da hori, esparru horretan eragin handia duten hainbat aldagai Planaren eskumenaz harago baitaude, hala nola lan-merkatuaren eta ekonomia orokorraren egoera, etxebizitza erosteko gaitasuna... Hau da, argi dago laguntzek ez dutela osorik betetzen seme-alaba edukitzearen kostua, edo lan-murrizketa edo -eszedentzia eskatzearena... Hala, azken urteetan EAEko jaiotze-tasa handitu bada ere, azken zenbatekoek aditzera ematen dute krisiarekin bat murrizpena ematen ari dela.
- 6.- **Emakumea lan-bizitzara eta garapen profesionalera sartzea erraztera bideratutako helburuari dagokionez**, neurriek helburu hori lortzera bideratuta daude, baina zehatz aztertu beharko da ea aldi berean ez ote duten laguntzen emakumeek lan-merkatuan bigarren mailako rola izaten jarrai dezaten; edozein modutan gertatuko litzatekeen egoera batean behintzat laguntza ekonomikoa ekartzen duten, edota benetan etorkizunean emakumeak lan-merkatuan errazago txertatzea laguntzen ote duten, merkatu horrekiko loturak mantentzea errazten duten neurrian.
- 7.- Planak **gizarte-sentsibilizazioa eta parte-hartze handiagoa ere sustatzen ditu**, baina mentalitateetan dakartzan aldaketak **oraindik orain mugatuak dira**, batik bat **esparru batzuetan**.



Lortutako emaitzak (3/3).



- 8.- **Emakume eta gizonen arteko ardurakidetasunari dagokionez**, horretara bideratutako neurri espezifikoak ezarri badira ere, **helburu hori oraindik betetzeke dagoela esan daiteke**. Gizonak oso-oso maila apalean hasi dira seme-alabak eta mendetasuna duten senitartekoak zaintzen. Urtez urte kopurua gora doan arren, osotasunaren aldean eragina hutsala da, eta horrek eramaten gaitu pentsatzera ea ez ote den komeni beste sail batzuekin irismen handiagoa izango duten estrategia koordinatuak lantzea.
- 9.- **Familiako eta laneko ardurak uztartzen laguntzeko helburua** beharbada erraztu egin da hiru urtetik beherako umeentzako haur-eskoletan plazak areagotu izanari esker eta, maila apalago batean -ezartzeko atzerapena egon delako- Mendetasuna duten Pertsonen Arretari lotutako ekinbideei esker.
- 10.- Planaren azken helburua **belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea** da. Helburuaren definizioa argi-argia ez den arren, pentsa daiteke pertsona nagusi eta adingabeen zaintza helburu horretan sartzen dela. Zentzu horretan Planak, sentsibilizazio-neurriekin batera, hori garatzen lagundu du.



Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko II. Planaren 2009ko gauzatze-mailari buruzko ebaluazioa.

11

ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK



Ondorioak.



Planean egiten den diagnostikoa indarrean dago gaur egun ere: bertan agertzen diren kezkak ez dira funtsean aldatu (jaiotze-tasa baxua, gorako joera badagoen arren, emantzipazio berantiarra, gizonen eta emakumeen parte-hartze desberdina lan-merkatuan eta etxeko arduretan...).

Familiei laguntzeko ahaleginari eutsi zaio Planean zehar, eta krisia krisi, eta estatuko egoera bestelakoa den arren, **areagotu eta sendotu egin da.** Zentzu horretan, zerbitzuen erabiltzaileen, laguntza-jasotzaileen... bilakaerak ere gorako joerari eutsi dio 2009an ere.

Lortu nahi diren helburuetan eragin handiena duten faktoreetako batzuk Familien Politikaren irismen zuzenetik kanpo daude. **Planak sustatu eta erraztu egin ditzake, beste sail batzuekiko koordinazioa eta haien mobilizazioa bultzatzeko...** baina, aldiz, zaila da lan-merkatuan aldaketa sakonak eragitea, edota premia duten familiako kideen zaintzan (seme-alabak, mendetasuna duten pertsonak) gizonen eta emakumeen arteko benetako ardurakidetasuna bermatzea.

Gorako joera izan arren, eremu zehatz batzuetan izan ezik, EAEn Familientzako Laguntza Politikak gure inguruko beste herrialde garatuago batzuetako egoeraren azpitik daude, argi eta garbi (batik bat Europako iparraldeko herrialdeak, baina bai eta Europako herrialde garatuago gehienak ere). Ondorioz, esparru horretan hobetzeko tarte handia gelditzen da.



Izaera operatiboko edo espezifikoko gomendioak (1/2).



- a.1) Estatu mailan seme-alaba bakoitzeko 2.500 €-ko laguntza ezabatu izanak berehalako eragina izango du 2011ko urtarriletik aurrera seme-alaba izango duten etxeetako ekonomietan. Planak kontzeptu horri **esleitutako LAGUNTZAK berrikustea** eragin dezake horrek.
- a.2) **Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten familiei** haurren arretarako sarera iristeko **ematen zaizkien diru-laguntzen inguruan**, eragile batzuek diote kudeaketa erraztu eta bertan sartzeko tarteak hobetu egin behar direla.
- a.3.) **Laneko eta Etxeko bizitza uztartzeko laguntzak** berrikitan berrikusi dira. Horregatik, balizko aldaketarik proposatu aurretik benetan nola garatzen den ikusi beharko da.
- a.4) **3 urtetik beherakoentzako haur eskolen esparruan**, duten kostuz gain, lanaldi murriztua edo lanaldi jarraituan dauden langileei zuzenduta daudela ematen du. Alabaina, langile gehienek lanaldi zatikatuan egiten dute lan, eta beraz, ordutegiak malgutzeko premia ikusten da.



Izaera operatiboko edo espezifikoko gomendioak (2/2).



- a.5) **Etxebizitzaren esparruan**, politika orokorrak ez du harreman zuzenik familia-politikarekin, baina egokia litzateke jarraipeneko adierazleak txertatzea, familiarentzako eta haurrentzako arreta bistaratzeko.
- a.6) **Gizarteratzeko** alderdi espezifikoei dagokienez, Familiarentzako Laguntza Planak Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko aipamenak jaso behako lituzke. Egia da gizarteratze-programak ez zaizkiela espezifikoki zuzentzen familiei, baina argi dago eragin zuzena dutela beraiengan.
- a.7) **Gizarte Zerbitzuei** bereziki lotutako beste esparru batzuetan, eremu horretako eskumenak batik bat Aldundiek eta Udalek dituztenez, esku-hartzeetan eta familiengan duten eragina ikustean, koordinazioa eta bistaratzeko hobetzea komeni da.
- a.8) Egindako ebaluazioaren ondorioz, **jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak** eurak hobetzea proposatzen da. Planaren helburuak zehatz-zehatzak ez direnez, zaila da parametro "objektiboetan" kokatzea ebaluazioa.
- a.9) Egindako ebaluazioak mugak edo hutsuneak izan ditu arrazoituta proposamenak egiterakoan, neurri horien inguruan **ikerketa sakonak** eskatuko bailituzkete. Familia eta Komunitate Politikaren Zuzendaritzak Ebaluazio honetan zehar egin nahi dituen "Ad-hoc" ikerketa horiek asko lagundu lezakete neurri horiek helburuekiko duten eraginkortasunaren inguruko pista adierazgarriak eskaintzen, edota beste esku-hartze batzuk abian jartzea erraz lezakete.



Izaera estrategikoko edo edukien inguruko gomendioak.



diru-laguntzetan jartzen duten Politika batzuek **indarra eta beste batzuek, ostera, familiei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan**. EAEn, esan daiteke diru-laguntzek nahiz zerbitzuek zer hobetu asko dutela, gure inguruko herrialde aurreratuagoen mailara iritsi nahi badugu.

Erreferentziako herrialdeetan, geroz eta gehiago zerga-politika erabiltzeko joera ikusten da: hainbat egoera desberdinetan pareko diru-sarrerak bermatu nahi direnez, kolektibo bakoitzaren arabera laguntzak zatikatzea dakar horrek. Gauzak horrela, kudeaketa- eta kontrol-kostu garrantzitsuak sortzen dira, eta zerga-politika erabiliz kostu horiek murriztea bilatzen da. EAEn, dagoeneko horixe da familietara dirua "transferitzeko" era garrantzitsuena.

Lan-esparruarekin kooperazioa, Laneko eta Etxeko bizitza uztartzea errazteko. Uztarketa-politika horiei esker lortzen da enplegua bermatzea eta aldi berean kalitatezko zerbitzuak eskaintzea; neurri horiek izan ohi dira eraginkorrenak jaiotze-tasa handienak lortzeko orduan.

EAEko ingurunean, enpresa txikiak nagusitzen direlarik, **antolakuntza-kulturetan aldaketak eragin behar dira, malgutasunaren komenigarritasuna azpimarratzeko**, antolakundeen produktibotasunaren eta eraginkortasunaren ikuspuntutik ere.

Ikusten denez, Plana zehazten duten ildo estrategikoen aldaketa egiteko, **Eusko Jaurlaritzako eta beste Erakunde batzuetako sail eta departamenduekin lankidetzat estuan aritu beharra dago.**

Gizarteko esparru guztietan, familia-esparruan barne, sentsibilizazioan eta berdintasuna eta elkartasuna sustatzen duten balioen inguruan aurrera egiteko apustua egin behar da.





ikuspegi@k

Gizarte Gaien Behatokiak
Observatorios de Asuntos Sociales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Departamento de Empleo
y Asuntos Sociales

Enplegu eta Gizarte
Gaietako Saila